

KOSTUEN EGITURA

Gure produktuak behar sozial bat asetu nahian, kostuak murrizten saiatuko gara. Gure produktua pertsona orori eskainita dago, eta denek eskura ahal izatea da gure nahi nagusienetakoa; horrexegatik ere, estatuak zein gizarteak eskaintzen dituen laguntzez baliatuko gara.

- Kostu finkoak, oraingoz, web-gunea, lokala eta kimikarien zenbait premia (ez baitira soldatapekoak izango, boluntariora) izango lirateke. Premia hauek ordaintzeko, gainera, lehenago estatuak eskainitako laguntzez baliatuko ginateke. Anoetan ezarritako lokal merkearen argi-indarra, zein ura ere kontuan hartu beharko genituzke.
- Kostu aldagarriak, berriz, produktua ekoizteko lehengaiak eta garraioan inbertitutako dirua lirateke. Hauek salmenta-bolumenaren arabera lirateke, beraz zenbat eta gehiago saldu orduan eta gehiago beharko genituzke. Beraz, produktu merkea ekoiztea interesatzen zaigu.



